



PRENTSA-OHARRA

Udalak Lezkairuko zalduko etxeen ondoko mendi-hegala egokituko du, eta bi gune urbanizatuko ditu Milagrosan: Zidacos Errekaren kalean eta Mutiloabeiti kalean

Lan horiek, bi kontratutan banatuta, lizitazio-aldian daude egun, eta zenbatekoak 470.000euro baino gehiago jotzen du

Iruñeko Udalak, Hirigintza Gerentziaren bitartez, hainbat gune egokitzeko jarduketak gauzatuko ditu hurrengo hilabeteotan Lezkairuko zalduan eta Milagrosa auzoan. Lezkairun, zalduko etxeen ondoko mendi-hegala egokituko da, horretarako oinezkoendako bideak sortuz, eraikitzen ari den auzo berrikoekin hobeto komunikatzeko; eta Milagrosan, gaur egun aparkaleku gisa erabiltzen diren bi plaza txiki urbanizatuko dira: Zidacos Errekaren kalean eta Mutiloabeiti kalean.

Hiru proiektu horiek bi kontratutan jasota daude, une honetan lizitazio-aldian, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuta. Lezkairuko zalduko etxeen ondoko mendi-hegala egokitzea Lezkairu urbanizatzeko proiektuaren 9. fasearen barruan sartzen da, 144.745,22 euroko aurrekontua du (BEZa barne), eta lanak gauzatzeko epea lau hilabetekoa izango da. Bestalde, Iruñeko ARZ-3 banaketa-arearen barruan dauden U.I. XVI/ZN1 eta U.I. XIX/ZN6 guneen urbanizazioaren gehigarria, zeinak Mutiloabeiti eta Zidacos Errekaren kaleetako obrak barne hartzen baititu, 327.364,46 euroan lizitatzen da (BEZa barne). Lanak gauzatzeko epea bost hilabetekoa da, behin esleitu eta zuinketa-akta sinatu eta gero.

Monjardín Mendiaren zeharkalearen luzapena eta plazaren urbanizazioa

Mutiloabeiti kaleak, Tennis Klubaren lursailak, eta Mutiloabeiti eta Monjardín Mendiaren zeharkalearen artean dagoen etxadia osatzen duten eraikinek mugatzen duten eremua erdizka dago zolatuta, eta behin-behineko aparkatze mugatuko eremu gisa erabiltzen da.

Jarduketaren barruan, batetik, Monjardín Mendiaren zeharkalea luzatuko da, eta aurreikusita dago lerroan nahiz baterian aparkatzeko lekuak paratzea; eta bestetik, plaza berri bat sortuko da, zirkulazio urriko kale berri horrek, Mutiloabeiti kaleak eta etxadia osatzen duen eraikin berriak mugatuta. Plaza bi gunetan banatzea proposatzen da, lurpeko aparkalekuaren eraginak mugatuta. Arkupeen ondoan egonleku bat prestatuko da, eserleku eta farolekin, eta beste

1. orrialdea, (e)tik 2



inguru zuhaitzu bat, berdegune sentsazioa sortze aldera. Hormigoi prentsatzuko baldosekin zolatuko da plaza osoa, eta zuhaitzendako txorkoak paratuko dira.

Plaza txiki bat egokitzea, Zidacos Errekaren kalean

Milagrosako Zidacos Errekaren kalean hainbat lan egingo dira egun aparkatze mugatuko eremu gisa erabiltzen den plaza txiki batean. 618,15 metro koadroko lursail bat da, erdizka zolatuta, eta bertatik etxebizitza-eraikin batetara sartzen da. Aurreikusitako jarduketaren bidez, plaza berria bi gunetan banatuko da. Batetik, egonleku zolatu bat egongo da, eserlekuekin, eta bestetik, berdegune bat, zuhaitzekin, mehelinak estaltzeko.

Zolatutako gunean lau zuhaitz landatzea proposatzen da, neurri handikoak, ondoko eraikinaren mehelinaren eragin bisuala arintzeko. Plaza lauzeekin zolatuko da, eta zuhaitzendako txorkoak paratuko dira. Ez da espaloirik egingo, horren ordez plazaren zoladura galtzadaren mugaraino eramango baita. Plaza txiki horretako etxebizitzetara sartzeko espaloia mantendu eta modu homogeen zolatuko da.

Zalduko etxeen ondoko mendi-hegala

Lezkairuko zalduko etxeetatik gertu dagoen Mendillorriko mendi-hegalean egingo diren lanak egokitzen lanak izango dira, mendi-hegala urbanizazioan integratze aldera. Horretarako hormigoizko bideak eraikiko dira, Zalduko etxeen goialdeko komunikazioa hobetzeko, eta argiteria publikoaz zein hiri altzariz hornitzeko, Hirigintza Gerentziako zerbitzu teknikoek erredaktatu duten proiektuaren arabera.

Mendi-hegalaren landaretza-tratamendua zuhaixkak landatuz egingo da, espaloiarekin mugatzen duen eremuan, zuhaitz berriak landatuko dira, eta mantentze-lan gutxi behar duen belardia sortuko da.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 9an